

gas likidotuak edo presiokoak
dauzkaten botilen
manipulazioa

19

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOAK

Botila

Gas likidotuak/presiokoak edukitzeko ontzia da, erabilerraztat jotzen dena, 150 litrokoa edo gutxiagokoa.

Botila handia

100 litrotik gorakoa izanik, 1.000 litrotik pasatzen ez den edukierako ontzia da, dituen neurri edo pisuarengatik, errazago erabili ahal izateko, elementu gehigarriak dituen (errodatzeko eraztunak edo irristailuak, adibidez).

Segurtasun-datuen fitxa

Fabrikatzaileak gai bat edo prestakin kimiko arriskutsu bat ekartzean berorrekin batera entregatu behar duen ziurtagiria, non gaiaren konposizio kimikoa, bere toxikotasuna, arriskua eta erabili eta biltegian jasotzeko modu egokia, hala nola bere erabilerak dituen arriskuak eta arrisku horietatik babesteko baliabideak, manipulatu, ontziratu eta etiketatzeko baldintzak, lehen sorospenak, suteen aurka borrokatzeko neurriak, eta ezbeharrez ihes egin edo isuriz gero hartu beharreko neurriak jasotzen diren.



ARRISKU ELKARTU NAGUSIAK

GAINESFORTZUAK

Arrazoa:

- Botilak eta botila handiak baliabide egokiekin ez erabiltzea.

KOLPEAK, TALKAK

- Helduleku egokien falta.
- Biltegitratze desegokiak.

SUTEA eta/edo LEHERKETA

- Gasa desegokiro erabili, biltegitratu edo mantentzeagatik, gerta liteke ihesak sortzea, eta horiek, bateraezinak diren beste produktuekin kontaktuan jartzean, eztandak, etab. eragitea.

ARRISKU KIMIKOA, INTOXIKATZEKOA eta/edo ASFIXIATZEKOA

- Gasa desegokiro erabili, biltegitratu edo mantentzeagatik, gerta liteke osasunarentzat kaltegarriak diren ihesak sortzea eta/edo oxigeno-eduki eskaseko atmosferak eragitea.
- Laneko jarraibide seguruak eta erabili beharreko babesgarriak ez ezagutzea.

PREBENTZIOZKO NEURRIAK

Neurri orokorrak (gas medizinalak eta beste erabileratakoak, adibidez, mantentzekoak)

Erabiltzaileak arduratu behar du botilen erabilera egokiaz, egoera onean edukitzeaz eta horiek erabiltzeko behar diren osagarriak mantentzeaz, hala nola daukaten gasa zuzen erabiltzeaz.

- Edozein botila zerbitzuan jarri aurretik, **kendu bere identifikazioa eragozten duen oro, eta irakurri bertan dauden etiketak eta markak**. Ez kendu eta ez aldatu fabrikatzaileak botilaren edukia identifikatzeko ipini duen marka, etiketa edo kalkomaniarik.
- Botila baten edukia ez baldin badago ondo identifikatua, bere hornitzaileari itzuli behar zaio erabili gabe.
- Eskatu hornitzaileari produktuaren Segurtasun-datuen fitxa. Erabiltzaile zaren aldetik, fitxa horrek dakartzan datu guztiak ezagutu behar dituzu. **Gas jakin bakoitza erabiltzeko adierazten diren Norbera Babesteko Ekipamenduak erabili**, bertan ageri diren gainerako datuak kontuan izateaz gain.



- Botilak **mugitzeko, segurtasun-oinetakoak eta eskularru egokiak** erabiltzea komeni da (erizaintzako pertsonala izan ezik, ospitalizazioko solairuetan balekin).
- Botilen edo beren edukiaren **erabilera egokiari buruz zalantzarik izanez gero, galdetu fabrikatzaileari edo hornitzaileari.**
- Botilak pertsona esperientziadunek bakarrik eta **aldez aurretik informatuta** erabili behar dituzte, eta erabiltzeko lekuetan erabiltzeko moduari buruzko **jarraibideek** egon behar dute.
- Botilak, erabiltzeko orduan, ez dira ipiniko lurrazpiko geletan edo sotoekin zuzeneko komunikazioa duten lekuetan eta, oro har, **aireztapen egokirik** ez dagoen lekuetan, aire-botilak direnean izan ezik.
- Kontsumitzeko gelan edo lekuan, **ezinbestekoak** diren botilak bakarrik eduki (erabiltzekoa eta erreserbakoa, behar izanez gero).
- Botila bat erabiltzen hasi aurretik, **ondo lotua** dagoela segurtatu behar da, katearekin, etab. erori ez dadin.
- Balbularen babesgarri mugikorrak (txapelak, txanoak, etab.) botilari akoplatua egon behar du, erabiltzeko unera arte.
- Balbulak itxita egon behar du beti, gasa erabili behar denean izan ezik, eta orduan erabat irekita egon behar du.
- Erregulagailua konektatu ondoren, eta botilaren balbula ireki aurretik, presio-erregulagailuaren torlojua erabat lasaituta dagoela egiaztatu behar da. Arreta-neurri hori kontuan izan behar da lana eteten denean edo botilaz aldatu behar denean ere.
- Botilen erregulagailua deskonektatu aurretik, itxi bere balbula eta kendu erregulagailuko presioa. Botila hustu bezain laster, itxi bere balbula eta ipini bere babesgarria. Eta segurtatu, botilak itzuli aurretik, pauso horiek guztiak eman dituzula.
- Botilaren **balbula poliki-poliki ireki**. Zu zeu gasak irten behar duen kontrako aldean jarri, eta inoiz ez ireki gasa jendearengana zuzentzeko posturan. Ez erabili inoiz hornitzaileak emandako edo gomendatutako tresnez bestelakorik.



- Ez utzi botilatik **hornitzaileak agindutako emaria** baino handiagorik irteten.
- Botila zerbitzuan dagoenean ihesak baldin badago, eta horri ezin bazaio eutsi, har itzazu hornitzaileak agindutako neurriak. Eta berdin jokatu da suaren edo korrosioaren pean dauden edo bestelako edozein akats duten botilekin ere.
- **Ez behartu** inoiz ondo-ondo doitzen ez diren konexioak, eta jakinaren gainean jarri hornitzailea edo Mantentze Zerbitzua, arazoren bat atzematen duzunean.
- Ez erabili tresnarik eskuzko bolanteaz hornitutako balbuletan. Irekitzen edo ixten zailak baldin badaude, edo trabatuak edo aleka hartuak baldin badaude, galdetu hornitzaileari.
- **Ekipamendu, kanalizazio eta osagarri** guztiek (presio-erregulagailuek, manometroek, atzeraezeko balbulek, mahukek, sopleteek, etab.), aplikazio bakoitzean erabili beharreko **gasari eta presioari dagozkienak** izan behar dute. Ez trukatu inoiz botila mota desberdinen ekipamenduak.
- **Botilak zirkuitu elektriko ororen kontaktutik urrun eduki.** Ez konektatu inoiz botilak zirkuitu elektriko bati. Botilak **bero-iturri orotatik, (labe, etab. etatik)** urrun eduki. Botilek **ez dute egon behar oso tenperatura hotzetan ere.**
- **Botilak, balbulak, erregulagailuak, mahukak eta horiei erantsitako instalazioak ez eduki, ahal dela, olio, koipe eta bestelako produktu erregaiekin kontaktuan,** zeren eta olioak eta oxigenoa, nitrogeno protoxidoa, etab. bezalako gasak konbinatuz gero, eztanda bortitzak sortzeko arriskua baitago. Garbitu eskuak, manipulatu aurretik.
- Ez erabili inoiz balbulen babesgarriak, bertan zer bait hartzeko ontzi gisa.
- Babesgarrian eta balbulan, **nahi gabe-edo, substantzia arrotzik sartzen baldin bada, jakitera eman hornitzaileari.**
- Botilak eta botila handiak **modu egokian garraiatu** behar dira, zutik, lotuta eta eskorgekin.
- Ez erabili inoiz botilak arrabol modura, euskarritarako edo gasa edukitzeaz bestelako ezertarako.
- **Guztiz debekatua dago:**
 - Gas sukoi eta erregarrien **botilak manipulatu edo erabiltzerakoan erretzea.**
 - **Balbulak desmuntatzea,** horrek sor dezakeen arriskuarengatik.
 - **Botila erabiltzeaz bestelako edozein manipulazio egitea;** adibidez, pintatzea, bestelako piezak soldatzea, etab.
 - **Egina dagoenaz bestelako gauzetan erabiltzea.** Esate baterako, ez erabili inoiz gas konprimiturik arropak garbitzeko edo jendea aireztatzeko.
 - Garrak erabili ihesak detektatzeko; horretarako abisatu hornitzaileari edo Mantentze Zerbitzuari.
 - Kualifikatua ez dagoen pertsona batek **gasak botila batetik bestera pasatzea,** eta horrelako gauzak osasun-etxe batean egitea.
 - **Garrarekin soldatu edo ebakitzea:**
Botilari dagokionez, debekatua dago, lana etetea, sopletea botilatik zintzilik uztea edo botila sopletearekin berotzea. Ez dira jarri behar botilaren paretarekin kontaktuan soldadura elektriko elektrodo-etxea edo masa-matxarda, eta ez pitzarazi ere arkua bertan.

Biltegitratzeak

- Eduki ezazu beti leku berezi bat presiozko gas-botilak erabili eta biltegitratzeko, pasabideetatik eta botilak kolpatuak izateko arriskuko lekuetatik urrun.
- Seinalatu behar bezala biltegi horiek. Ondo antzemateko moduan bereizi botila beteak eta hutsak.

Beste eskakizun batzuk

- Litekeena da botilak garrari atzera egiten ez uzteko euste-balbula edo atzeraezeko gailu edo sistema egokiren bat izatea, botila bestelako gas edo likidoek atzera egiteagatik eta/edo gas sukoiak eta/edo erregarriak erabiltzeagatik "kutsatzeko" arriskua dagoenean.
- Oso kontuan izan hori eskabide bati oniritzia emateko orduan.
Badago barruan gasa daukaten botilak behar bezala edukitzeko instalazioei eta beharrezko osagarri guztiei buruzko prebentziozko mantentze-plan bat. **Eduki itzazu** horretarako **seinalatutako lekuetan**, errazago kontrolatu ahal izateko.

Sutea sortzen denean

- Gas-botila bat bero-iturri batekin zuzeneko kontaktuan egonez gero, gasaren presioa nabarmen igotzen da, eta baliteke berorren eztanda eragitea ere. **Ahal baldin bada, gas-botilak berehala atera behar dira sutea dagoen lekutik.** Eta hori egitean botilak berotu direla ikusten bada, hoztu egin behar dira, etengabe ur langartua botaz. Baina hobe, betiere, dakiten pertsonen esku uzten baduzu.
- **Ez ireki sua indar dezaketen gasak** dauzkaten **botilak**, eta **itxi** zerbitzuan daudenak.
- Suhiltzaileak gas-botilak dauden leku bateko sua itzaltzen ari baldin badira, **emaiezu gas-botila horien berri, non dauden, zenbat diren eta zer gas daukaten ohartaraziz.**

